

BERRIOBEITI

Delaldia, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko zerbitzu anitzetako enplegatuen hiru lanpostu

Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko otsailaren 25ean hartutako erabaki baten bidez delaldi bat onetsi zen, Berriobeltiko Udaleko zerbitzu anitzetako enplegatuen hiru lanpostu oposizio-lehiaketa bidez betetzeko, bat lan-araubidekoa eta bi funtzionarioen araubidekoak. Honako hauek dira delaldiaren oinarriak:

OINARRIAK

1.-Arau orokorrak.

1.1. Delaldi honen xedea da Berriobeltiko Udalaren zerbitzura arituko diren zerbitzu anitzetako enplegatuen hiru lanpostu betetzea, oposizio-lehiaketa bidez, bat lan-araubidekoa eta bi funtzionarioen araubidekoak, D mailakoak, lanaldi osoan. Plantilla organikoan 73., 76. eta 77. zenbakiekin identifikatutako lanpostuak dira, 2024rako onetsitako lan publikoaren eskaintzaren arabera.

Era berean, eta 9. oinarrian ezarritakoarekin bat, delaldi honen xedea da izangaien zerrenda bat eratzea, zerbitzu anitzetako enplegatuaren lanpostua aldi baterako betetzeko, lehen proban puntuazioaren %30 gutxienez lortu duten izangalekin.

1.2. Izendapenaren ondorioz hautatuak gertatzen direnak bilakatuko dira Berriobeltiko Udaleko lan-kontratudun langile finko (73. lanposturako) eta funtzionario (76. eta 77. lanpostuetarako), ondorio guztietarako, karguaz jabetzen diren egunetik hasita, eta alta emanen zaie Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean.

1.3. Lanpostuek izanen dituzte Nafarroako administrazio publikoan zerbitzuko langileei dagozkien D mailako ordainsariak, bai eta plantilla organikoan ezarritako lansari osagarriak ere.

1.4. Urteko lanaldia izanen da galnerako udal langileek duten bera, eta zerbitzuaren beharretara egokituko da; beraz, administrazio organo eskudunek noliznahi aldatzen ahalko dute.

1.5. Beren mailako eta kategoriako eginkizunak beteko dituzte. Adierazpen gisa eta ez modu baztertzaillean, hona hemen egin beharreko zeregin batzuk:

–B motako gidabalmena behar duten ibilgailuak gidatzea.

–Udalaren ibilgailuak zaindu, ordenatu eta garbitzea, bai eta agindutako lanak egiteko behar diren makinak, tresnak eta materialak ere.

–Udalaren hiri-azpiegiturak eta instalazioak, biltegiak, etxabeak eta udal-nabeak mantentzea, konterbatzea, garbitzea eta ordenatzea.

–Udalaren azpiegitura eta egoitzetan mantentze- eta konponketa-lanak egitea: iturgintza, elektrizitatea, pintura, igeltserotza, lorezaintza eta abar.

–Zenbait lan egitea, hala nola zangak irekitzea eta ixtea, altzariak biltzea eta deskargatzea, pintadak garbitzea, soldadura-lanak, kristalak jartzea, sarrailagintza-lanak egitea eta abar.

–Hirigintza alorretik eskatzen zaizkion lanak, honako hauek jartzeko, muntatzeko eta desmuntatzeko: hesiak, seinaleak, agertokiak, karpak eta bestelako elementuak.

–Sasiz garbitzea bide publikoak, udal jabetzako lurzatiak, udalerriko hilerriak (barrualdetik zeln kanpoetik) eta hirigintza alorretik eskatzen diren lekuak garbitzea.

–Parke eta lorategien mantentze-lanak.

–Bide publikoak garbitzea.

–Aurretik deskribatutakoen antzeko zeregin guztiak, bere maila eta kategoriaren barruan, baldin eta zerbitzuak agintzen badizkio.

2.–Baldintzak.

2.1. Oposizio-lehiaketa honetan onartuak izateko, izangaiak baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

2.1.1. Izangai guztiek bete beharrekoak:

a) Espainiako edo Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea izatea, edo Europako Erkidegoak Izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen aplikazio-eremuan dagoen estatu bateko nazionalitatea, joan-etorri askea aplikatzen den estaturen batekoa; orobat, parte har dezakete Espainiako nazionalitatea eta aipatutako nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuan dauden estatuetak nazionalitatea duten herritarren ezkontideek, zuzenbidez bananduta ez badaude; halaber, haien ondo-rengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bananduta ez badaude, baldin hogeita bat urtetik beherakoak badira edo, hortik gorakoak izanez gero, haien kontura bizi badira.

b) Hamasei urte beteak izatea eta ez gainditzea erretiroa nahitaez hartzeko ezarritako gehieneko adina.

c) Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean, gutxienez izatea Eskola Graduatuaren titulu, Lanbide Heziketako lehen mailakoa edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo aurrekoetako baten baliokidea, edo izateko maneran egotea (titulu hori eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekina).

Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioa frogatzen duen agiria eduki beharko da.

d) B motako gidabaimena.

e) Ez egotea desgaitua edo gabetua eginkizun publikoetan jarduteko, eta ez egotea administrazio publikoren baten zerbitzutik kendua.

f) Behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea bete behar diren eginkizunetan aritzeko.

2.2. Lanpostua eskuratzen duten izangaiak delaldi honen 8. oinarrian ezarritako epean eta moduan frogatu beharko dituzte aipatu beharkizun guztiak. Eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete beharko dituzte eta haien jabe izanen dira hautatze prozeduran, harik eta izendatu arte.

3.–Eskabideak eta aurkezteko epea.

3.1. Delaldian parte hartzeko eskabideak aurkezteko hogeita hamar egun naturaleko epea egonen da, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, eta modu telematikoa aurkeztu behar dira, nahitaez, Udalaren egoitza elektronikoaren erregistroaren bidez <https://sedeelectronica.berrioplano.es/default.aspx?eskabide> orokorraren izapidea erabiliz.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.3 artikuluan ezarritakoaren arabera (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legea), "administrazioek hain harrerama nahitaez bitarteko elektronikoz izan beharra ezartzen ahalko dute zenbait prozeduratarako eta pertsona fisikoen multzo batzuentzat, haien gaitasun ekonomikoagatik, gaitasun teknikoagatik, dedikazio profesionalagatik edo bestelako arrazoiengatik egiaztaturik badago behar diren bitarteko elektronikotarako irispidea eta eskuragarritasuna badutela".

Halaber, 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorre buruzko abenduaren 26ko 19/2024 Foru Legearen bigarrenean (Nafarroako Administrazio Publikoek deitutako hautapen prozesuei buruzko xedapenak) hau ematen da aditzera: "Nafarroako administrazio publikoek ahalmena ematen zaie Administrazioan sartzeko edo bertako lanpostuak betetzeko hautapen-prozesuen delaldietako eskabideak eta gainerako dokumentazioa bitarteko elektronikoen bidez aurkez daitezela eskatzeko".

Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

3.2. Eskabideak delaldi honen I. eranskinean argitaratutako ereduari lotu behar zaizkio. Hailan izangaiak adierazi beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

3.3. %33ko desgaitasuna edo handiagoa duten izangaiak egokitzapenak eskatzen ahalko dituzte, denbora eta baliabideen aldetik, ariketak egin ahal izateko, hala behar izanez gero. Halakoetan,

eskabidean adierazi beharko dute, beste orrialde batean, zer nolako desgaitasuna duten eta/edo zer egokitzapen eskatzen dituzten. Horretarako, izangaiak egokitzat jotzen duen dokumentazioa aurkez dezake, eskaera aurkeztean.

3.4. Izangaiak alegatu egin beharko dituzte kalifikazio-epaimahaiak baloratu beharreko merezimenduak, delaldi honen 6. oinarriaren arabera.

Dokumentazio hori aurkezten ez bada eskabideetarako ezartzen diren epean eta moduan, ez dira baloratuko merezimenduak.

3.5. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa. Eskabidea aurkezteko unean, izangaiak aurkeztu beharko dute dokumentazio hau, kasuaren arabera:

3.5.1. NANaren edo nortasuna frogatzen duen beste agiri baten kopia.

3.5.2. Delialdiko bigarren oinarrian eskatzen d(ir)en titulu(eta)ko baten kopia, edo titulua lortzeko eskubideak ordaindu dituela frogatzen duen gordekinarena, edo, bidezkoa denean, eskaerak aurkezteko epea bukatu aurretik titulua eskuratzeko moduan zegoela frogatzen duen ziurtagiria.

3.5.3. Alegatutako merezimenduak frogatzen dituzten ziurtagiriak, lehiaketaldian baloratzeko, 6 oinarrian ezarritakoari jarraikiz.

3.5.4. %33ko desgaitasuna edo handiagoa duten izangaiak aurkeztu beharko dute hura frogatzeko agiria, organo eskudunak emana, parte hartzeko eskabidearekin batera. Halaber, azterketak egiteko egokitzapenak eskatzen ahalko dituzte, denboraren nahiz ballabideen aldetik. Kasu horretan eskabidean bertan adierazi beharko dute, eta, horrez gainera, aparteko orri batean azaldu beharko dute zer desgaitasun duten eta zer egokitzapen eskatzen dituzten.

3.5.6. CaixaBankeko ES80 2100 5184 5422 0005 1438 kontuan azterketa-eskubideen kontzeptupean 6,35 euro ordaindu izanaren egiaztagiria. Ordainagirian datu hauek adierazi beharko dira nahitaez:

–Izangaiaren izen-deiturak.

–Kontzeptua: zerbitzu anitzetako enpleguaren azterketa.

Azterketa eskubideen tasa ordaintzen ez bada, izangala baztertu egingen da.

Aski izanen da dokumentazioaren kopia arruntak aurkeztea, baina aurkeztutako datuak edo agiriak ez-zuzenak edo faltsuak badira, eskatuko dira behar diren erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

3.5.7. Euskara baloratzeko agiriak.

B1 mailako euskararen ziurtagiri ofiziala edo titulu egiaztagarria.

4.–Izangaien onarpena eta erreklamazioak.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea amaiturik, Berriobeltiko Udaleko alkateak ebazpen bat emanen du, onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesten duena, eta aginduko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Berriobeltiko Udalaren egoitza elektronikoa argitara dadila.

4.2. Izangai baztertuek hamar egun baldinaren epea izanen dute, behin-behineko zerrenda Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aitzina, erreklamazioak aurkezteko eta, delialdiko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeke agiritan akatsik egin badute, horiek zuzentzeko. Erreklamazioak telematikoki aurkeztu beharko dira beti.

4.3. Erreklamazioak aurkezteko epea iragan eta erreklamazioak edo, hala badagokio, zuzenketak ebatzi ondoren, alkateak ebazpen bat emanen du, onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko, eta aginduko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Berriobeltiko Udalaren egoitza elektronikoa argitaratzeko.

Baldin onartuen behin-behineko zerrendarako bazterturik ez badago, onartuen behin betiko zerrenda onetsiko da.

4.4. Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi bertan ageri direnei altortzen zaienik betetzen dituztela erabaki honen bidez iragartzen den prozeduran eskatutako baldintzak. Hautapen-prozesua

gainditu ondoren, izangaiek aurkeztu beharreko dokumentazioa aztertzen denean, egiaztatzen baldin bada ez dutela baldintzaren bat betetzen, interesdunek galduko dituzte prozedura honetan parte hartzeagatik izan ditzaketen eskubide guztiak, galarazi gabe faltsukeria dela-eta dagozkien erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

4.5. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpen berean zehaztuko da non, noiz eta zer ordutan eginen den oposizioaldiko lehen ariketa eta epaimahaiaren behin betiko osaera. Ondoren, epaimahalak gainerako ariketak egiteko iragarkiak argitaratuko ditu bere garaian, Berriobeitiko Udalaren egoitza elektronikoa.

4.6. Azterketa eskubideak ez dira itzuliko, baldin izangaiek baztertutik gelditzen badira izangaiei berri ekoizten ahal zaien arrazoi batengatik.

5.–Kalifikazio-epaimahaia.

5.1. Hauek izanen dira kalifikazio-epaimahaiko kideak:

–Epaimahaiburua: Félix Remírez Hoyos, Berriobeitiko Udaleko alkatea.

–Ordezkoa: Luis González Lorente, Berriobeitiko Udaleko alkateordea.

–Epaimahaikidea: José Ángel Ardanaz Ulibarri, Berriobeitiko Udaleko zerbitzu anitzetako arduraduna.

–Ordezkoa: Francisco Espiga López, Berriobeitiko Udaleko zerbitzu anitzetako enplegatua.

–Epaimahaikidea: Jesús M.^a López Goñi, Berriobeitiko Udaleko lorezaintzako arduraduna.

–Ordezkoa: Roberto Leon Zaro, Berriobeitiko Udaleko ordezkari sindikala.

–Epaimahaikidea: Laura Luis Soto, Berriobeitiko Udaleko aparejadorea.

–Ordezkoa: David Azcona Rulz de Galarreta, Berriobeitiko Udaleko arkitektoa.

–Epaimahaikide idazkaria: Idola Suárez Urrutia, Berriobeitiko Udaleko idazkaria.

–Ordezkoa: Natalia Rodríguez Aguado, Berriozarko Udaleko idazkaria.

5.2. Kalifikazio-epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo deitzaileari horren berri eman, baldin badaude abstenitzeko egoera batean, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua araberan (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko Legea).

Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaiko kideak errekusatzea, egoera horietako bat gertatzen denean.

5.3. Epaimahaia eratu beharko da hautaprobak hasi baino lehen, eta, haren eraketak eta jardunak balioa izan dezaten, kide guztien gehiengo osoa bildu beharko da gutxienez.

5.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu delaidiko oinarrien interpretazioari eta aplikazioari buruz sortzen diren gorabehera guztiak.

5.5. Epaimahalak aholkulari adituen laguntza izan dezake, proba batzuetan nahiz guztietan. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko, eta haletan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

6.–Oposizio-lehiaketaren nondik norakoak.

6.1. Oposizio-lehiaketa bi alditan eginen da: lehiaketaldia lehenbizi, eta oposizioaldia gero, oinarri hauetan zehazten den gisara.

6.2. Lehiaketaldia. Epaimahaiak izangaiek aurkeztutako merezimenduak baloratuko ditu, ondotik heldu den baremoari jarraituz. Merezimenduak agiri bidez frogatu beharko dituzte izangaiek, oposizio-lehiaketan parte hartzeko eskabidea aurkeztean. Horrela egin ezean, ez dira aurkeztutzat hartuko. Epaimahaiak noiznahi eska ditzake izangaiek alegatutako merezimenduei buruzko argibideak eta datu osagarriak.

6.3. Merezimenduen baremoa. Lehiaketaldian, 30 puntu lortzen ahalko dira gehienez, eta ez da baztertzaillea izanen.

6.3.1. Laneko esperientzia. Gehienez ere 15 puntu.

a) Deialdiko lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko, edozein administrazio edo sozietate publikotan egiazki egindako zerbitzu-urte bakoitzeko: 2 puntu urteko.

b) Deialdiko lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko, herri-administrazioetatik kanpo egindako zerbitzu-urte bakoitzeko: 1 puntu urteko.

Egindako zerbitzuak baloratzeko, kontuan hartuko dira honako inguruabar hauek:

a) Bete diren lanpostuen malla, haletan eskatutako titulazioa eta lanpostuen izena.

b) Urte kopurua osoa ez bada, proportzional dagokion puntuazioa emanen da.

c) Lanaldi partzialean egindako zerbitzuak berdin baloratuko dira, lanaldia edozein izanik ere.

d) Beste zerbitzu batzuekin aldi berean egindako zerbitzuen kasuan, puntuaziorik handiena dutenak bakarrik baloratuko dira.

e) Lan egindako denbora baloratzeko, honako hau aurkeztu beharko da: zerbitzuak zer administrazioetan egin diren, administrazio horrek emandako ziurtagiria, egindako eginkizunak eta lanposturako eskatzen den titulazioa frogatzen dituenak.

6.3.2. Prestakuntza. Deialdiko lanpostuaren edukiarekin lotutako prestakuntza-jarduerak baloratuko dira, gehienez 10 punturekin, baldin erakunde ofizialek eta/edo elkargo profesionalek, zentro publikoek eta unibertsitateek antolatutako badira:

-0,5 puntu, 10 eta 30 ordu bitarteko ikastaro bakoitzeko.

-0,7 puntu, 30 ordu gora eta 100 ordu bitarteko ikastaro bakoitzeko.

-1 puntu, 100 ordu gora gorako ikastaro bakoitzeko.

Ez dira baloratuko 10 ordu baino gutxiagoko ikastaroak, ez eta zer iraupen izan duten zehazten ez dutenak ere.

6.3.3. Goi mailako tituluak. Erdi eta goi mailako Lanbide Heziketako ikasketak tituluengatik, lanpostuarekin ikustekoa badute:

-Erdi mailako gradua: energia eta ura lanbide-arloa; instalazioa eta mantentze-lanak lanbide-arloa; elektrizitatea eta elektronika lanbide-arloa; igeltserotza eta eraikuntza lanbide-arloa; arotzeria lanbide-arloa; lorezaintza lanbide-arloa; edo deialdiaren xedeko lanpostuarekin lotutako erdi-mailako gradua: 2 puntu.

-Goi mailako gradua: energia eta ura lanbide-arloa; instalazioa eta mantentze-lanak lanbide-arloa; elektrizitatea eta elektronika lanbide-arloa, igeltserotza eta eraikuntza lanbide-arloa; arotzeria lanbide-arloa; lorezaintza lanbide-arloa; edo deialdiaren xedeko lanpostuarekin lotutako goi mailako heziketa zikloa: 3 puntu.

Gehienez ere 5 puntu emanen dira, guztira, goi-mailako titulazioengatik.

6.3.4. Euskara.

Udal-eremuan euskararen erabilera eta sustapena arautzen duen ordenantzan ezarritakoaren arabera, eta Nafarroako administrazio publikoetan lanpostuak eskuratu eta betetzeko merezimenduen balorazioa arautzen duen 97/2024 Foru Dekretuan ezarritako ehunekoarekin bat etorritik, euskara baloratuko da merezimenduen baremoaren gainerakoari eslehitutako puntuazioaren %7arekin. Hortaz, euskararen ezagutza gehienez ere 2,1 puntu baloratuko da B1 tituluak edukiz gero. Horien azpiko titulazioei puntu hauek emanen zaizkie: A1 tituluak 0,42 puntu izanen ditu, A2 tituluak 0,84 puntu, B2 tituluak 2,1 puntu eta C1 tituluak 2,1 puntu.

Hizkuntza eskola ofizial batek emandako gaitasun agiriarekin edo ofizialki haren balioak frogatzen dituzten titulazioarekin frogatzen ahalko da, eta eskabideari agiri horren fotokopia erantsi behar zaio.

Lehiaketaldia bukatutakoan, epaimahaiak ikusgai jarriko du izangaien zerrenda Berriobeitiko Udalen egolza elektronikoa, eta bakoitzak lehiaketaldian lortutako puntuak zehaztuko ditu.

6.4. Oposizioaldia 2025eko apiriletik aurrera hasiko da.

Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenean bertan ezarriko dira probak hasteko tokia, eguna eta ordua. Halakorik bada, epaimahaiak hurrengo probetarako deialdiak argitaratuko ditu Berriobeitiko Udalaren egoitza elektronikoa 48 orduko aurrerapenarekin gutxienez; bertan adieraziko du proba egitera deituta dauden izangaien zerrenda, bai eta oposizioaldiko proba non, noiz eta zer ordutan egingen den ere.

Oposizioaldiko probarako dei bakarra egingen da, eta izangaiak aldean izan beharko dute nortasun agiri nazionala, pasaporte edo gidabaimena, bai eta bolaluma urdina edo beltza ere. Prozesutik baztertuko dira iragarritako egunetan, orduetan eta tokietan agertzen ez diren izangaiak eta alpatu diren agirien bidez identifikatzen ez direnak.

6.5. Oposizioko probak oinarri honetan zehaztutakoak izanen dira, eta deialdiko II. eranskinean zehazten den gai-zerrendako gaiak buruz galdetuko da.

Gai guztiak eskatuko dira delaldi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean indarrean den araudiaren arabera.

Hautaprobak egiteko, behar diren eta posible diren egokitzapenak egingen dira %33ko desgaitasuna edo desgaitasun aitortu handiagoren bat dutenentzat, denbora eta ballabideen aldetik, eskabidean hala eskatu badute.

6.6. Oposizioak proba hauek izanen ditu:

6.6.1. Lehen proba: teorikoa. Idatziz erantzun beharko zaio galde sorta bati. Galderak test modukoak izanen dira, II. eranskineko gaiak buruzkoak.

Ariketa honengatik gehienez ere 35 puntu lor daitezke, eta gutxienez ere 17,5 puntu eskuratu behar dira gainditzeko. Erantzun okerrak galdera zuzen baten puntuazioaren laurden batekin zigortuko dira.

6.6.2. Bigarren proba: praktikoa. Proba praktikoa gai hauetako bati edo batzuei buruzkoa izan daiteke: elektrizitatea, mekanika, iturgintza, igeltserotza, soldadura... lanpostuaren berezko eginkizunekin zerikusia dutenak. Ariketa honengatik gehienez ere 35 puntu lor daitezke, eta gutxienez ere 17,5 puntu eskuratu behar dira gainditzeko.

Proba bakoitza hasi baino lehen, epaimahaiak ezarriko du ariketak egiteko zenbat denbora egonen den.

6.7. Oposizioaldiko ariketa guztiak baztertzaileak izanen dira. Bazterturik geldituko dira, bada, ariketa bakoitzari dagokion gutxienezko puntuazioa bederen eskuratzen ez dutenak.

Proba teorikoa egiteko ez da inolako testurik edo dokumentaziorik erabiltzen ahalko, ezta gailu elektronikorik edo bestelako materialik ere, boligrafo urdina edo beltza izan ezlik.

6.8. Gutun-azal itxien sistema erabiliko da proba teorikoan. Ariketa bakoitza zuzendutakoan, kalifikazio-epaimahaiak argitara emanen du kalifikazioen zerrenda Berriobeitiko Udalaren egoitza elektronikoa eta, era berean, adieraziko da gutun-azal itxialak jendaurrean irekitzeko eguna eta ordua.

6.9. Proba bakoitzaren kalifikazioa bukatu ondoren, epaimahaiak Berriobeitiko Udalaren egoitza elektronikoa argitaratuko ditu izangaiak lortutako puntuazioak, eta bost egun baldioduneko epea ezarriko du interesdunek eskubidekotzat jotzen duten gutzia alega dezaten modu telematikoa.

7.-Gainditu dutenen zerrenda, lanpostu hutsen hautaketa eta izendapen proposamena.

7.1. Ariketaren kalifikazioa buruturik, epaimahaiak ikusgai jarriko du, Berriobeitiko Udaleko egoitza elektronikoa, probak gainditu dituztenen zerrenda, puntuazioaren arabera ordenatua, eta horretarako, izangai bakoitzak lehlaketaaldian eta oposizioaldian ateratzen dituen kalifikazioen batuketa egingen du. Berdinketa gertatuz gero, oposizioaldiko lehenengo proban puntuazio handiena lortu duten izangaien alde ebatziko da. Berdinketak badirau, zozketa publiko bidez ebatziko da.

7.2. Epaimahaiak Berriobeitiko Udaleko alkateari helaraziko dio puntuazio handiena duten hautagaien aldeko izendapen proposamena. Proposamen hori Udalaren egoitza elektronikoa eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

7.3. Izendapen proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko hogeita hamar egun naturaleko epean, proposatutako izangalek deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituztela ziurtatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte Berriobeitiko Udalaren erregistro orokorrean; zehazki, honako hauek:

- a) Nortasun-agiri nazionalaren kopia, edo izangalaren nazionalitatea eta identitatea frogatzen dituen beste agiri balioekideren batena.
- b) Interesdunak lanpostuko eginkizunak betetzea eragozten dion eritasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez duela dioen osasun ziurtagiria.
- c) Deialdian eskatutako tituluaren jatorrizko agiria edo kopia autentifikatua, edo hura lortzeko eskubideak ordainduak dituela erakusten duen ordainagiria.
- d) Zinpeko deklarazioa edo deklarazio solemnea, adierazten duena ez dagoela desgaitua edo gabetua eginkizun publikoetan aritzeko eta ez dutela kendu administrazio publikoren baten zerbitzuetik.
- e) Zin egite edo hitz ematea, Nafarroako Foru Araubidea begiratu, Konstituzioari eta legeei men egin eta karguaren eginkizunak zintzo beteko dituela.

7.4. Epe horretan, eta behar adina justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, izangalek ez badituzte dokumentu horiek aurkezten, ezin izanen dira izendatu, eta haien jarduketa guztiak balio gabetu egingen dira, galarazi gabe egozten ahal zaizkien erantzukizunak, haslerako eskabidean gezurra esateagatik.

7.5. 7.4 apartatuan ezarritako kasuan, hutsunea beteko da puntuazioen zerrendan, 7.1 apartatuan aipatu den horretan, hurrengo den izangaiarekin, eta harekin aurreko apartatueta adierazi moduan jokatu da.

7.6. Izapide hori egin eta gero, lanpostu hutsak aukeratzeko ekitaldirako deia egingen da, argitara emanez aukera daitezkeen lanpostu hutsen zerrenda eta hautaketa egitera deitutako izangaien zerrenda (lanpostu hutsak hautatzeko lehentasun ordenari jarraikiz). Bertan adieraziko da, halaber, izangalek zer baldintza frogatu dituzten eta zer epe dagoen lanpostu hutsak hautatzeko.

Udalaren egoitza elektronikoan argitaratuko da informazio hori.

8.–Izendapena eta jabetza hartzea.

8.1. Hautapen-prozesua amaituta, gainditu eta puntuazio handiena lortu duten izangalek 7.3 oinarrian aipatutako dokumentuak aurkeztuta, eta lanpostu hutsak hautatzeko egintza eginda, Berriobeitiko Udaleko Alkateak Berriobeitiko Udaleko funtzionario izendatuko ditu, 76. eta 77. lanpostuetarako, eta lan-kontratudun langile finko izendatuko du 73. lanposturako, zerbitzu anitzetako enplegatuen lanpostuan ari daitezen.

8.2. Izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, kontuan izanik argitalpen horrek jakinarazpenaren ondorio berberak izanen dituela, hala ezartzen baitu 45. artikuluan urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legea).

8.3. Izendatutako izangalek hilabeteko epean hartu beharko dute lanpostuaren jabetza, izendapena jakinarazten zalenetik hasita. Ezarritako epearen barnean, eta behar adina frogaturiko ezinbesteko kasuak salbu, jabetza hartzen ez badute, eskubide guztiak galduko dituzte Berriobeitiko Udaleko funtzionario eta lan-kontratudun finko bilakatzeko, eta aurreko oinarrian esandakoari jarraikiko zaio.

9.–Aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrendak.

9.1. Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamenduaren 42. artikuluan xedatutakorekin bat, eta deialdi honen 1.1 oinarrian ezarritakoarekin bat, aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrenda bat prestatuko da probak gainditu baina lanposturik lortu ez duten izangalekin.

Era berean, aldi baterako kontrataziorako izangaien bigarren zerrenda bat eratuko da, zerrenda nagusiaren subsidiarioa (plazarik gabeko gairituak), oposizio lehen ariketan gutxienez 30 puntu lortu dituzten izangai baztertuak.

Probak gairitu baina lanposturik eskuratu ez dutenen zerrendan, izangaien ordena ezarriko da oposizioaldian lortutako puntuazioaren arabera. Hala ere, hautapen prozesua gairitu ez duten izangaien zerrendako ordena finkatuko da oposizioaldiko lehenengo proban lortutako puntuazioaren arabera, eta zerrenda horretan berdinketa bada, zozketa bidez ebaziko da.

9.2. Berribeiteko Udalaren egoitza elektronikoko argitaratuko da aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda.

9.3. Deialdi honetan sortuko diren kontratazio zerrendek bost urte iraunen dute, salbu eta epe laburragoan agortzen badira edo beste deialdi bat egiten bada.

9.4. Deialdi honetatik sortzen den aldi baterako lan-kontratazioetarako zerrenda arautuko du Berribeiteko Udalean aldi baterako langileak kontratazeko zerrendak kudeatzeko erregelamenduak (2017ko 13. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, urtarrilaren 19koa).

10.–Datuen babesa.

Izangai honen berri ematen zaie, jarraikiz 2016/679 (EB) Erregelamenduari (Datuen Babesteko Erregelamendu Orokorra, DBEO) zehazki, haren 13. artikuluari:

–Berribeiteko Udalaren ardura da deialdiko parte-hartzaileek emandako datu pertsonalen tratamendua.

–Datuen tratamenduaren helburua da langileak hautatzea eta deialdiko lanpostuak betetzea.

–Hona hemen oinarri juridikoa: DBEOren 6.1.c) artikulua (tratamendua beharrezkoa da, bete dadin tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion legeko betebeharrak), eta DBEOren 6.1.b) artikulua (tratamendua beharrezkoa da, kontratu bat gauzatzeko, interesduna denean kontratu horren alderdi bat, edo tratamendua beharrezkoa denean kontratu aurreko neurriak aplikatzeko, berak eskatuta).

–Datuen zein helburutarako bildu diren, halako helburua lortzeko beharrezkoa den denbora guztian gordeko dira, bai eta deialdiaren edo datuen tratamenduaren ondoriozko erantzukizun guztiak zehaztu ahal izateko denbora guztian ere. Artiboen eta dokumentazioaren gaineko araudian ezarritakoa aplikatuko da (Nafarroako toki-erakundearen agiriak ebaluatu eta ezabatzeko jarraibideak).

–Datuen komunikatuko dira legeak ezarritako kasuetan (5/2015 Legegintzako Errege-Dekretua, urriaren 30koa), barnean dela gardentasunaren atarian argitaratzea, bat etorri 5/2018 Foru Legearen 19.2.f artikuluekin.

–Titularrek eskubidea izanzen dute datuetan sartzeko, datuen zuzentzeko, deuseztatzeko, tratamendua mugatzeko, kontra egiteko eta datuen eramateko, udal bulegoetara Joz (Udaletxeko plaza 1, Berribeite), ayuntamiento@berrioplano.es helbide elektronikora idatziz edo webgunea kontsultatuz (<https://www.berrioplano.es/eu/>).

–Halaber, eskubidea dute erreklamazioa aurkezteko Datuen Babesteko Espainiako Bulegoan (www.aepd.es), uste badute datuen tratamendua ez datorrela bat indarrean den araudiarekin.

11.–Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka nahiz oinarrien eta aplikatzeko egintzen aurka, errekurso hauetako bat aurkez daiteke, hautara:

a) Berraztertze errekurtsua, egintza egin duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

b) Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, zeina zuzendu behar baitzaio Nafarroako Administrazioarekiko Auzien Epaiteglari, bi hilabeteko epean, errekurtsoaren xedeko egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

Kalifikazio-epalmahalaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke, delaldia egin duen toki-erakundeari zuzendua, hilabeteko epean, errekurtsoaren xedeko egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.

Berribeitin, 2025eko martxoaren 4an.—Alkatea, Félix Remírez Hoyos.

I. ERANSKINA.-ESKABIDEA

**ESKABIDEA, BERRIOBEITIKO UDALEKO ZERBITZU ANITZETAKO ENPLEGATUEN
HIRU LANPOSTU OPOSIZIO-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO**

Eskabidea, Berriobeitiko Udaleko zerbitzu anitzetako enplegatuen hiru lanpostu oposizio-lehiaketaren bidez betetzeko deialdian parte hartzeko. Deialdia zenbakidun Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, data honetan:

1. Datu pertsonalak:

Izen abizenak:
 NAN zk.: Jaiotze data: hel-
 bidea:..... kalea:, zenbakia:
 pisua:, posta kodea:, telefono finkoa:, telefono mugikorra:
 e-maila:, zure aurrera agertu eta

AZALTZEN DUT:

Ez dudala karguan aritzea eta hartan jardutea galarazten didan eritasunik edo akats fisiko nahiz psikikorik.

Ez dudala indarrean dauden xedapenetan ezarritako ezintasunik.

Ez nautela kendu, diziplina espedientearen bidez, inongo administrazio publikoren zerbitzutik, ezta kanporatu ere diziplinako kaleratzearen bidez, eta ez nagoela desgaitua eginkizun publikoak betetzeko.

Badudala deialdian eskatzen den titulazioa.

Baldintza guztiak betetzen ditudala eskaerak aurkezteko epearen azken egunean.

Desgaitasuna dudala eta, hortaz, behar ditudan egokitzapenak eskatzen ditudala, haietarako arrazoiak adierazita (beste orri batean zehaztuko dira eskatutako egokitzapenak eta eskaeraren arrazoiak).

Aurkeztzen dut desgaitasuna frogatzen duen agiria, erakunde eskudun batek emana.

Eskabideari agiri hauen fotokopiak erantsi dizkiodala:

- Nortasun Agiri Nazionala.
- Eskatzen diren ikasketen tituluak.
- Merezimenduak, lehiaketaldirako.

II. ERANSKINA.-GAI-ZERRENDA

1.-Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia: arriskuak identifikatzea, norbera babesteko ekipamendua erabiltzea, seinaleztatzea eta balizatzea...

2.-Soldadura teknikak eta erreminten oinarrizko erabilera.

3.-Igeltserotzako teknikak: erremintak; materialak; zolatzea eta alikatatzea, enkofratuak eta mu-ruak zultzea...

4.-Iturgintzako eta berokuntzako instalazioen gaineko mantentze-lanak: sanitarioak, txorrotak, zisternak, sifoiak, berokuntza zirkuituak, zirkuituak betetzea eta airez purgatzea, galdara-gelak eta halen berezko elementuak.

6.-Ulertzea eskema elektrikoak eta Iturgintzakoak.

7.-Udalaren makinak, ibilgailuak, lanabesak eta tresnak maneiatzea, mantentzea eta konpontzea.

8.-Eraikinen eta hiri altzarien mantentze-lanak.

9.-Pintura-teknikak, erremintak eta materialak. Pintura-lanak, oro har. Apaintzeko pintura eta obrako pintura. Bideetako pintura.

10.-Lorezaintzako teknikak (erremintak, inausketa, fitosanitarioen erabilera, sastrakak kentzeko makinaren maneia, ureztatzeko sistemak).

11.-Kaleen garbiketa mekanizatua eta ez-mekanizatua.

12.-Hondakin mota bakoitza bereizi eta metatzea.

13.-Zurgintzako kontzeptu orokorrak. Zurgintzako lanabesak. Zurgintzako materialak, zurgintza-lanak.

14.-Sarrailagintza eta metalgintza. Oinarrizko ezagutzak. Erremintak. Materialak. Tratamendu termikoak eta azaleko tratamenduak. Sistema mekanikoak konpondu, doltu eta erregulatzea. Sarrairen, banden, gontzen eta ateetarako bestelako burdinerien mantentze- eta konpontze-lanak.

15.-Berriobeiti udalerriko geografia, toponimia eta kale-izendegia.

16.-17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzkoa: I. eta IV. tituluak.

17.-251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena: II. tituluak.

